

SAN JUAN BALEONTZIAREN KOPIA NOLA, HALA HAZITAKO LAPURTAR NERABEAK

Garikoitz Mujika Zubiarrain

Begiak dir-dir eta barrenak bero utzi dizkie Ziburuko Piarres Larzabal kolegioko ikasleei «Baleontziaren bidea» proiektuak. Horri esker itsasoaren inguruko euskal ondarea ezagutu dute eta zurtuta geratu dira topatu dutenarekin. Igo gaitezen geu haien «ontzira». Erria txikotat!


Ziburu, pareko Donibane Lohizune bezala, itsasoari begira handi egindako herria da. Hantxe dago, kresal zaporea hartzeko metro bakan batzuk besterik geratzen ez zaion Untxin ibaiaren ondoan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Seaskaren ikastola, Piarres Larzabal. Hego Lapurdiko 11-15 urte bitarteko gaztetxoek ikasten dute bertan. Iñaki Lekuona irakaslea damu da «aspalditxoan bizi garelako itsasoari bizkar emanik». Pare bat mende, jarri du mugarrira.

Bizkar emanagatik handia da alabaina, zinez handia, itsasoaren inguruko euskal ondarea. Handia bezain estua, ordea, frantses hezkuntza programek geure historia jorratzeko uzten duten zirrikitua. Kezka hori pizgarri, gure historiaren altxor handi bat belaunaldi berrientzat galduta egotearen ezinegona akuilu, duela lau urte Pasaian eraikitzen hasi ziren XVI. mendeko San Juan baleontziaren erreplika aukera, gaiari helduko ziotela ebatzi zuten kolegioko irakasleek. Baleontziaren berreraikuntzaz arduratzen den Albaola museoaren eskaintza zuten batetik; bi sorgin –Maritxu Larzabal animatzailea eta Ttoni Basurko hezkuntza aholkularia– hauspo bestetik; eta Jon Maia bertsolaria-rengana jo zuten.

Izan ere, Labradorko ur hotzetan aurkitutako munduko balea ehizarako txaluparik zaharrenaren, San Juan baleontziarekin batera urperatu zenaren, kopia eraiki ondotik, 41 egunez 2.000 kilometro egin zituen zumaiarrak 2006an beste bost lagunekin batera Kana-dako kostaldean XVI. mendeko euskal historia lau hai-zetara zabaltzen. «Apaizak obeto» jarri zioten izena espedizio hari; abentura hartan girotuta idatzi zuen «Beothuk» komiki-liburua euskaraz eta ingelesez. Xehetasun horiek guztiak bertatik bertara kontatzera etorri zitzairen Maia ikastetxera eta liluratu egin zituen.

Liluratik grina loratu zen, grinatik asmoa: goazen baleontzi zaharraren kopiaren eraikuntza segituz, askorentzat ezezaguna den XVI. mendeko euskal historia lantzerantz. Hala ekin zioten abenturari marinel prestuenen pare irakasle nahiz ikasleek, 2012an. Lau urteko bidaiaren ostean, maiatzaren 21ean «lehorreratu» ziren, Lohizuneko Jai Alain eskainitako ikuskizunarekin.

Lehen etapetako bat Donostiako Itsas Museoa jazo zen. Orduan 11-12 urte zituzten Hendaiaiko Aimar, Asier eta Anddek, Azkaineko Joanes eta Xanek ere bai. Senpereko Enekak, Sarako Julenek eta Biarritzeko Mirenek berdin. Gaur 14-15 dituzte. Bale ehizaren iraganaz eta



San Juan baleontziaren erreplikaren eraikuntza prozesua «bizitzea» izan da Larzabaleko ikasleentzat gauzarik hunkigarrienetako bat. LARZABAL kolegioa

orainaz Euskal Herrian lehen aldikoz antolatu zen behin behineko erakusketa monografikoa –“Baleazaleak”– ikusten izan ziren Gipuzkoako hiriburuan. Erdi Aroko arrantza motak ezagutu zituzten horri eskerrak eta bale nahiz bakailao harripaketan Atlantikoa zeharkatuz Kana-dako lur urrunetara, Labradorrera eta San Lorentzo golgora, joaten ziren XVI. mendeko euskaldun aitzindari haien larruazalean jartzeak zirrara eragin zien.

ARRANTZARI JARRAIKA, AMERIKARAINO

Zirrarak jakin-mina piztu. Hari horretatik tiraka, Biologian animalien migrazioa landu zuten eta, ikasleek eurek kutun zutelako hautatutako gune bat egoitza, ur-taroen arabera hegazti, ugaztun eta anfibioen artean, lurrian bezala itsasoan, populazio aldaketa nabarmenak izaten direla konturatu ziren. Itsasoari bizkar emanda lehorrean koskortutako belau-naldia euren arbasoen arrantza balentria ulertzen hasia zen jada: bale ala bakailao, haiei jarraika Amerikaraino iritsi!

Baleontziarekin aurrera eginez, Pasaia-Lezo lizeoko haurrekin harremana hasi zuten orduan 11 bat urte zituzten ikasleek, lapurtar eta gipuzkoarrek elkar hobe-

to ezagutzea xede. Gutun eta posta elektronikoen bidez ireki zuten bidea eta ikasle-en bizkar geratu zen beren adinkideekin komunikazio-sua ilauntzen ez uztea. Joan ziren Lezora bisitan, elkar aurrez aurre ezagutzera. Gero, ordea, izotzak hartu zituen itsaso horretako urak. Bi ikaste-txeetan lehentasun berak ez eta lezoarrek beste bide bati heldu zioten, gauza jakina baita batzuetan asmoak, ederrak izanagatik, astaputzak bezalakoak izaten direla: itxuraz balekoak, barrenean hutsak.

Itsas balentrien giroan erabat murgildurik, literaturaren sail oso bat, bidaia liburuena, agertu zitzairen 12 urteko ikasleei aurrez aurre eta protagonista bat, Koldo Izagirrek euskara ekarria duena: Victor Hugo. XIX. mendeko idazle ezaguna 1843an iritsi zen Pasaiara. Bertako portuak liluraturik, bolada batez bertan geratzea erabaki zuen eta hantxe bizitakotik idatzi zuen «En voyage, Alpes et Pyrénées» eleberria. Idazlearen pausuei jarraiki, liburuaren pasarteak klaseetan landu ondotik, Pasai Donibaneko Victor Hugoren etxera joan ziren. Hala, garaiko arrantza portu baten funtzionamendua ezagutu zuten gure neska-mutikoen.



Giro epikoa gori-gori, ezin bada Homeroren “Odisea” aipatu gabe utzi. Frantses klaseak baliatuz, Troiako gerlaren ostean Ulises heroi greziarraren etxerako itzule-
ra gorabeheratsua bizi izan zuten poeta greziarrarekin. Ikusi, entzun eta ikasitakotik euren Ulises propioaren abentura sortu beharra izan zuten gero. Bidaiari-
en eta esploratzaileen frantses elkarteko kide baten, Jacques Santouren, zinema-
konferentzia izan zuten horretan lagun-
garri, hark ekoiztutako “Ulisesen bidaia” dokumentala aurrez aurre aurkeztera etorri baitzitzairen kolegiara.

IPARRIZARRA

12-13 urte zituztela, animalien arnas sistema ezberdinak eta horien sailkapena ikasteko garaia iritsi zitzairen Biologian, baina “maisu” berezi baten laguntza izan zuten horretarako: Pasai San Pedroko Mater itsasontziarena. Donibane Lohizunera egindako bisita baliatuta, 1990ean eraikitako atunontzi horrek, hamahiru urtez antxo, sardina, berdel eta hegaltze arrantzan ibili ostean museo bihurtua denak, itsasoko bizia nolakoa den eta arrantza teknikak zein diren “irakatsi” zien. Labradorreko kostaldeko animaliak

Ezkerrean, Albaolara egindako bisita baten une bat. Eskuinean, Altsasuko hariztira joan ziren eguna. Handik atera dituzte San Juan baleontzia egiteko zurak. LARZABAL kolegiara

Matematikako orduak baliatuz, nabigazioaren oinarri teorikoak eskuratu dituzte: izar konstelazioak ezagutu, lurraren biraketa aztertu eta biraketa horrek izarrak ikusteko posizioan zein eragin duen ulertu

Ondo ikasia du lezioa Aimarrek: «Arrantzaren inguruan kostaldeko jendea mugitzen da egun, baina, bale arrantzan, ontziak eraikitzen edo hornitzen, Euskal Herri osoko jendea aritzen zen auzolan erraldoi moduko batean»



eta euskal kostaldekoak ezagutu zituzten bide batez horrela.

Itsasontzitik liburuen mundu miresgarri-
rira jauzi egiteko unea etorri zen berri-
ro. Oihane Fernandez “Labarreko itsa-
sargia” lanarekin, itsas hiztegia ikasteaz
bat, etxeko kalapitetatik ihesi osaba faro-
zainarenera doan Ania gaztea ezagutu
zuten gure neska-mutilek, eta bere kontu
eta komerierekin marinela zaharrak, abent-
turaz, maitasunez eta tristuraz betetako
kontakizunak ezpainetarazten zituzte-
nak, topatu.

13-14 urterekin, Matematikako ordue-
tan, berriz, nabigazioaren oinarri teoriko-

ak eskuratu zituzten eta horri eskerrak
izar konstelazioak ezagutu, lurraren bira-
keta aztertu eta biraketa horrek izarren
behaketan duen eragina ulertu. Garaiko
marinelen izar bereziaren ere, Iparrizarra,
aurkitu zuten, astrolabioa erabiltzen tre-
batzearekin batera. Tresna horrekin loka-
lizatzen zituzten marinelek izarrak eta
haien mugimendua behatzen, itsas zaba-
lean ez galtzeko.

Itsasontzien eraikuntzan ezinbesteko
osagaia zuten, gaur bezala XVI. mendean,
burdina eta haren lanketa bertatik berta-
ra ikusteko, Aiako (Gipuzkoa) burdinola
zaharrera egin zuten joan-etorria. Ago-
rregiko ola bezalakoak XVI. mendean, Gi-
puzkoa-Bizkaia aldean, 300 bat zirela
ohartu ziren eta teknologiaren handita-
sunaz jabetu: hiru elementu besterik ez
zituzten behar horren lehengai garrant-
zizkoa lortzeko; burdin mea, egur-ikatz
eta ibaietako ura besterik ez. Mailuaren
tiriki-traukiak txunditu zituen hala ere
gehien gure nerabeak.

Baionako Euskal Museora sartu-irtena
ere egin zuten, bertako bildumako altxor
handi bat ezagutzera: “Partida triste
Ternuara” bertso izkribua, 1798an idatzia,
nork ez dakigula. Beharrezko segurtasun



Goian, «kortsarioen pare» altxorraren bila Donibane Lohizuneko kale bihurrietan ibili zirenekoa. Ezkerrean, Biologia maisu berezitik, Mater atunontzitik, jaitsi zirenean. LARZABAL kolegioa

arauak harturik, jatorrizko dokumentua ukitzeko aukera ere izan zuten. Horrek piztutako zirrara ageri da oraindik haien begietan. Asierrek jarri du guztien partez ahotsa: «Erakusten du idaztea ez zela garai hartan elitearen kontu huts bat, herri xehearena ere bai».

Maiatzaren 21eko ikuskizuna, proiektuak iraun duen urte horietan guztietan bizitakotik XVI. mendeko giro hura taulara eramatea xede izan duena –batzuek dantza, besteek kanta, hurrenek konta–,

Bereziena baleontziaren eraikuntza aurrera nola doan bizitzea izan dela aitortu dute. Urtean birritan joan dira Pasaiara. Azken batean, euren gorputza hazten zihoan eran ikusi dute San Juan ontziaren erreplika eraikitzen

Ateraldi ezberdinetan bizitakoa jaso oroitzen liburuxka bat egin dute ikasleek. Bertan, bakoitzaren sentipenei hauspo eman zaie. Benetako altxorra geratu zaiela argi dute; begiak piztu zaizkie gaia aipatzean

prestatzeko inspirazio iturri izan dute bertso hori, Guillermo Zubiagak idatzitako “Joanes or The Basque Whaler” marrazki-komikia bezala. Idazle bizkaitarra New Yorketik Larzabalera etorri zitzaizen bere lanaz solas egitera.

Kantari ere aritu dira. Proiektuaren barruan, itsasoari edo marinelen biziari lotutako abestiak ikasi dituzte gazteek eta CD batean grabatu, tartean Benito Lertxundiren “Balearen bertsoak” edota “Boga-boga” ezaguna. Ez dute ahanzteko San Juan baleontziari gila jarri zitzaion eguna. Haien hitzekin sortutako kantua abestu zen zeremonia ofizialean; abeslari ere Larzabaleko ikasle koroa.

ATZERA KORTSARIOAK ZIBURUN

Joanes Zuhigaraitxipi kortsario hendaiar ezaguna, burua jasoko balu, harro egongo litzateke belaunaldi berriekin. Ikusentzunezko bat tarteko, geure historian horrenbesteko itzala izan duten kortsario eta piraten bizipenetan murgildu ziren ikasleak. Euskal Herrikoak soilik ez, mundu zabaleko kortsarioen gorabeherak ere ezagutu ondotik, gaiaz erakusketa bat antolatu zuten eta pista jokoan aritu Donibane Lohizuneko kaleetan. Detalle bitxiez oroitzen dira; barre algara batean gogoratu dute Daniel Matematikako irakasleak giltza-zorroa zuela belarrian.

Kortsario zaildu bihurturik, bale harripaketarako ontziaren erreplika egiten hasi ziren zurez, 1:20 eskalan. Berehala jabetu ziren, ordea, zailegia zela eta balehizarako txaluparen erreplikari ekin beharrean izan ziren. Hiru aurreratu samar dituzte. Hura zen lana hura, baina hara nola aritu ziren proportzioak eta kalkulu matematikoak lantzen, zerrak nahiz zula-lagailuak erabiltzen, eta itsasteko gai ezberdinak erabiltzen trebatzen.

Kortsarioen ibilbideetan barrena, Cantinoren planisferio ezagunaren kopia bat aztertu zuten. 1502ko mapa horrek portugaldarrek XV. mendean egindako lur aurkikuntzak jasotzen ditu, garaiko europarrek oso gutxi ezagutzen zituzten bazterrak, eta, bide batez, planoetan neurriak hartzen eta orientatzen ikasi zuten.

ITSASOA BARNEALDERAINO IRISTEN ZEN

Ezkio-Itsasoko Igartubeiti baserri museo-ara bisita ere egin zuten, euskal baserriaren historia eta bilakaera ezagutzeko. Baleontziak hornitzeko ezinbestekoa zen sagardoa bertan ekoizten zuten, besteak beste. Izan ere, kostaldeko itsas industria aurreratu hura mantentzen barnealdeak latz egin behar izaten zuen lan. Ontziak eraikitzeko egurra ere bertako basoetatik etortzen zen.

Horrexegatik, San Juanen erreplika eraikitzeke egurrak datozen basora, Altsasuko Dantzaleku hariztira, jo zuten ondotik. Hango interpretazio zentroan deskubritu zuten ontzigintzarako zuhaitzen aukeraketa nola egiten zuten, nola zurkaizten zituzten, nola inausten eta zaintzen hamarkadetan zehar gero itsasontziko pieza jakin bakar bat eraikitzeke baliagarri izateko.

Itsasoaren industriak barnealderainoko erroak izate horrek harritu ditu gehien gure gaztetxoak. Hala aitortu dute. Aimarren hitzak dira hauek: «Gaur egun arrantzaren inguruan kostaldeko jendea mugitzen da, baina, bale arrantzan, ontziak eraikitzeke egurgintzan edo burdingintzan, ontziak sagardo hornitzen, Euskal Herri osoko jendea aritzen zen auzolan erraldoi moduko batean, eta horri esker lortzen zen ontzi bat joatea Ternuara, gero koipez beteta itzultzean, Euskal Herri osoan argia izateko». Ondo ikasia du lezioa.

OROITZAPEN LIBURUXKAREN ALTXORRA

Ateraldi ezberdinetan bizitakoa jasoz oroitzapen liburuxka bat taxutu dute ikasleek. Bertan, bakoitzaren sentipenei hauspo eman zaie, eta horiek adierazteko bideak jorratu: literatura, musika, dantza, antzerkia, zinema, marrazkia, margoa, arkitektura... Benetako altxorra geratu zaiela argi dute; begiak piztu zaizkie gai hori aipatzean.

Sentipenei jare egitea bezain garrantzizkoa da, alabaina, beso-hankei eragitea. Proiektuaren baitan, gorputz heziketa orduetan, Donibane Lohizuneko Ur Yoko arraun elkartearekin lankidetzan, arraun ikastaroa egitea zuten asmo, baina eguraldi txarrak zapuztu egin zien asmoa. Gerorako utzi behar... eta gero dioenak bego dio. Ez dute, ordea, egingo duten itxaropenik galdu oraindik.

Horrenbeste gauza eginik, kutuntasunaren galbahean pasaz aukera egiteko eskatuta, ados jarri dira zortzi neska-mutilak: bereziena baleontziaren eraikuntza aurrera nola zihoan bizitzea izan da, Pasaiara bertara joatea baleontziaren garapena ikustera. Azken batean, euren gorputza hazten zihoan eran ikusi dute San Juan baleontzia eraikitzen, urtean pare bat aldiz, Albaolan. Aimarrek beste ñabardura bat ere egin du: «Lortu dugu Euskal Herriko historia, gure arbasoen historia, berreskuratzea bide praktikotik».

Ez dute San Juan baleontzian itsasorazterik izan. Hasierako proiektua horixe zuten, maiatzaren 21ean eskaini zuten ikuskizuna Donostiako kaian ematekoa, hastapen batean aurreikusitako San Jua-



Maiatzaren 21ean bukatu zuten «Baleontziaren bidea». Goian, XVI. mendeko gertakariak kontatuz Donibane Lohizuneko Jai Alai pilotalekuan eskainitako ikuskizuna. Eskuinean, lau urteko «bidaian» bizitakoarekin ikasle bakoitzak osatu duen oroitzapen liburuxkaren orri bat. LARZABAL kolegioa

nen itsasoratze egunean hain zuzen, eta bukatzeaz bat estreinako bidaian Donibane Lohizunera etortzea. Borobila. Horrexek liluratu zituen gehien seigarren mailan proiektua aurkeztu zitzaizenean.

Krisaldiaren eraginez eraikitze lanetarako laguntzak apaldu izanak, atzeratu egin du baleontziaren itsasoratze data 2018-2020ra arte. Ez dakite noski non izango diren orduan, baina Iñaki irakasleak argi du zinez polita litzatekeela haietako batzuek une hori bizitzea.

San Juanekin zer egingo luketen itaunduta, murmurra hazi da. Plausta hauxe ateratu zaio bati: «Lehenik Ternuara joan eta gero, badirudenez hemen baleak itzultzen ari direla, haien babeserako eta ikerketarako erabili». Adar jole erantzun du beste batek: «Piezaz pieza saldu!». «Portuz portu museo gisa aritu» serioago hirugarrenak. Transatlantiko gisa baliatzeko aukera ere ateratu da mahai gainera. Aukera exotikoa, garai batean bezala itsasoan ibiltze hori. «Eskorbutoarekin,

oso exotikoa bai» jalki zaio bati. «Ez, sagardoarekin ez da eskorbutorik!» erantzun dio zorrotz beste batek. Beharrezko liratekeen lanpostuak zerrendatzen amaitu da jokoa: kapitaina, itsas neska-mutilak, gida turistikoak, biologoak, sukaldariak... «Teknikoa, frigorifikoa apurtzen bada...» mutil batek. «Orduan ez zen hozkailurik» hartu dio kontu neska batek, «ez duzu deus ikasi materiala landu dugularik!». Eta barre gozoa ateratu zaie. Merezki izan duen abentura, ezta?